

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

---

Balorezko proposamena gauzatzeko, funtsezko jarduera eta prozesu batzuk aurrera eraman behar dira, haien artean lehenetasuna ezarriz. Funtsezko jarduerak ekoizpenean, arazoak konpontzean eta plataformaren edo sarearen jardueretan banatzen dira. Hala ere, gure negozio-eredua aplikazio batek ematen duen zerbitzua denez, gure jarduera nagusia plataformaren edo sarearen jardueretan oinarritzen da.

Nahiz eta COMPUTATA S.A.-k gure aplikazioa programatu eta mantendu, geu gara diseinuaren hobekuntzaz, marketinaz eta eguneratzeaz arduratuko garenak. Jarduera hori funtsezkoa da APPENDENTZIA garatu eta eguneratuta edukitzeko eta kalitatezko zerbitzu bat eskaintzeko, erreferente bat bihurtuz. Horretarako, aplikazioa eguneratuta edukitzeaz gain, kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko, honako jarduera hauek egin beharko ditugu:

### **BALOREZKO PROPOSAMENA**

- Bezeroek establezimenduak argi ulertzeko edo, are gehiago, beren establezimenduak sortzeko aukera emango dieten irudi eta sinboloen kopurua handitzea.
- Web-kameraren edota ahotsaren bidez telelaguntzarako sarbide erraza ezartzea.
- Hornitzaile eta sozietateekiko kontratuak eta harremanak eguneratuta izatea: COMPUTATA S.A., Gurutze Gorria eta Aldundia.
- Menpekotasunaren kolektiboarekin zerikusia duten beste enpresa, elkarte eta erakunde batzuekin harreman ona izatea.

### **KOMUNIKAZIO ETA BANAKETA KANALAK**

- Google Play-rekin eta App Store-rekin promozioak eguneratuta mantentzea eta promozio onak lortzea.

### **BEZEROEKIKO HARREMANAK**

- Harremanetarako atalean bezeroari arreta pertsonalizatua ematea, telefono-zenbaki baten eta posta elektronikoa baten bidez. Izan ere, 24x7 365 eguneko bezeroentzako arreta doakoa da eta horren bidez, bezeroek euren zalantzak, galderak eta arazoak adieraz ditzakete feedback on bat mantenduz.
- Bezeroekin harreman ona izatea, haien iradokizunak eta hobekuntzak kontutan hartuta.

### **DIRU-SARRERAK**

- APPENDENTZIA-ren (marketina) ondo sustatzea.
- Sare sozialak ondo eguneratuta izatea.
- Beste enpresa batzuekin publizitate-kontratuak mantentzea eta lortzea.